

LOREEKIN APAINTZEKO II.LEHIAKETA

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

Orozkoko Udalak, Indumako Informazio Bulegoaren bidez eta herritarrek jarduera hauetan parte hartze handiagoa eta osoagoa izan dezaten sustatuz, lehiaketa hau antolatu eta deialdia egin du, honako hauen arabera:

LEHENENGOA. Lehiaketa honen helburua da espazioetan loreekin egindako dekorazio desberdinen aitortza egitea, bai BALKOIAK*, bai BALKOIAK ETA LORE-TXOKOAK*.

* Balkoiez hitz egiten denean, lorez apaindutako kanpoko espazio bat baino ez dira.Balkoiez eta lore-txokoez hitz egiten denean, lorategiak, fatxadak edota terrazak izan daitezke.

BIGARRENA. Nahi duten pertsona fisiko edo juridiko guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, betiere aurretiaz izena emanaz gero.Izena emateko epea uztailaren 20ko 15:00ak arte egongo da zabalik.Izena ematerakoan, pertsonaren izen-abizena, harremanetarako telefono zenbaki bat, eta ebaluatuko den espazioaren helbidea jakinarazi beharko dira.Ondorengo bideak erabiliz eman daiteke izena:

- Telefonoz, 94 633 99 45 (Induma Informazio bulegoa).
- Posta elektronikoz, infoinduma@yahoo.es
- Edo aurrez aurre Induma Informazio Bulegoan

HIRUGARRENA. Loreen arloan aditua den pertsona batek osatuko du epaimahaia.

LAUGARRENA .Epaimahaiak balkoiak banan-banan bisitatuko ditu, kanpotik ikusita, edo barrutik kasuren batean, hala eskatuz gero, dekorazioa, zailtasuna, kolorea, mantentze-lanak, originaltasuna eta abar baloratuz.

BOSGARRENA. Lehiaketak honako sari hauek izango ditu:

A/ BALKOIAK:

1. saria:100 €
2. saria:50 €
3. saria:25 €

B/BALKOIAK ETA LORE-TXOKOAK:

1. saria:100 €
2. saria:50 €
3. saria:25 €

SEIGARRENA. Irabazleen izenak irailaren 5ean, 12:00etan, Museoan, jakinaraziko dira.Ondoren, tokiko komunikabideen bitartez jakinaraziko da epaimahairen erabakia. Erabaki hau apelaezina izango da.

ZAZPIGARRENA. Lehiaketaren irabazleek Orozkoko Udalari lagako dizkiete, inolako mugarik gabe, loren dekorazioarekin egindako argazkien irudi-eskubideak.

ZORTZIGARRENA. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek bere osotasunean onartzea dakar.